

EBAZPENA 78E/2024, urriaren 1ekoa, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, “Euskara helduei irakasteko laguntzak: 2023-2024” deialdiko laugarren ordainketa eta deialdiaren kitapena ebazten dituen.

ERREFERENTZIA: **Espedientearen kodea: 0011-0617-2023-000000**

UNITATE KUDEATZAILEA: Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua
Euskararen Sustapen eta Plangintzaren Zerbitzua
Euskara Sustatzeko Atala
Tfnoa.:848 426054
Helbidea: Paulino Caballero, 13. 31002 Iruña
Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

ESPEDIENTEA

Espediente mota: Euskara helduei irakasteko laguntzak: 2023-2024

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuak uztailaren 7ko 72E/2023Foru Aginduan onetsita eta azaroaren 27ko 91E/2023 Ebazpenaren bitartez esleitutako deialdia dela eta aurkeztutako ordainketa proposamena ikusirik. Aurkeztutako txostenak justifikazio-dokumentuen baliagarritasuna eta horien gainean egindako balorazioa jasotzen du.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Onuradun bakoitzari beheko taulan ageri diren zenbatekoak ordaintzea, laguntzaren laugarren zatian eta deialdiaren kitapena:

Kod. Exp	IFZ	Izena	Aurrekontuko kontu-partida	Zenbatekoa
0011-0617-2023-000004	G31240005	ASOCIACION CULTURAL BORTZRIETAKO EUSKALTEGIA	G/B30002/B3200/4819/334104	3.696,21
0011-0617-2023-000005	F95222816	EUSKARAZ KOOP E	G/B30002/B3200/4819/334104	107.366,18
0011-0617-2023-000007	G31263072	ASOCIACION LEITZAKO EUSKALTEGIA	G/B30002/B3200/4819/334104	2.398,55
0011-0617-2023-000009	G31941008	FUNDACION SAHATS	G/B30002/B3200/4819/334104	30.495,90
0011-0617-2023-000010	G31762529	FUNDACION ARTURO KANPION	G/B30002/B3200/4819/334104	23.296,69

2. Ebazpen hau jakinaraztea eskatzaile bakoitzari; eta igortzea Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarakoan duen Kontu-hartzailetza Delegatura; aipatutako departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira; Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Gai Administratiboak, Langileria eta Azpiegiturak Kudeatzeko Atalera; baita Dirulaguntzen Datu Base Nazionalera ere, bidezko

ondorioak izan ditzan.

3. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2024ko urriaren 1ean.

EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI
KUDEATZAILEA

Javier Arakama Urtiaga |